

IRAGARKIA

4. ALDIZKARIA - 2002ko urtarrilaren 9a

III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

ITURMENDI

Herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Iturmendiko Udalaren mugapeko herrilurretako ondasunen administrazioa, erabilera, zainketa, berreskurapen eta aprobetxamendu egintzak erregulatzen dituzten arauak ezartzea da ordenantza honen xedea.

2. art. Herrilurretako ondasunak herri honetako bizilagun guztiek aprobetxatu eta erabil ditzaketenak dira.

3. art. Herrilurretako ondasunak besterenduezinak, preskribaezinak eta bahitezinak dira eta ez dute bere gain tributurik izan.

Ez dute aldaketarik jasanen bere izaeran nahiz tratamendu juridikoan, edozein dela ere haiek aprobetxatu edo erabiltzeko era.

4. art. Herrilurretako ondasunen gaineko arauak hauek dira: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta haren erregelamenduzko xedapenak; Nafarroako Foru Zuzenbide Administrazioaren gainerako arauak; herrilurren ordenantza hau eta, bestenaz, Foru Zuzenbide Pribatuaren arauak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 40. artikuluko hirugarren idatz-zatian xedatutakoa deusetan galarazi gabe.

II. TITULUA

Administrazioa eta xedapen egintzak

5. art. Herrilurretako ondasunen gaineko ahalmenak, dela haien erabileraz, dela administrazioaz, dela aprobetxamenduaren araubideaz, dela antolamenduaz, Iturmendiko Udalari dagozkio, ordenantza honetan azaltzen den moduan.

Herrilurretako ondasunen inguruan Iturmendiko Udalak hartutako erabakiek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritako kasuetan.

6. art. Lurzati tikiak saldu edo trukatzeko desfektazioa egin aitzinetik Nafarroako Gobernuak haien onura publiko edo soziala deklaratu beharko du eta, hori baino lehen, Iturmendiko Udalak justifikatu beharko du dagoen asmoa ezin dela beste bide batzuen bitartez lortu, hala nola lagapena eginez edo kargak ezarritik, horietatik izanen baitira lehentasunezko aukerak.

Herrilurretako ondasunak desfektatu ondotik beste batzuei lagatzeko edo kargak ezartzeko hartzen diren erabakietan, itzultze klausula sartuko da, egintza horien helburuak edo baldintzak desagertu edo betetzen ez diren kasuetarako.

Halakorik gertatuko balitz, lur horiek Iturmendiko Udalaren ondarera itzuliko lirateke herrilurretako ondasun gisa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 140. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

III. TITULUA

Herrilurretako ondasunak zaindu eta berreskuratzea

7. art. Iturmendiko Udala herrilurretako ondasunak zaindu, defendatu, berreskuratu eta hobetzen ahaleginduko da, eta kontra eginen die horientzat kaltegarri izan daitekeen edozein pribatizazio saiari edo bestelako ekintzari.

8. art. Iturmendiko Udalak noiznahi berreskuratu ahal du herrilurretako ondasunen jabetza, aldez aurretik legelariaren txostena ikusi eta interesatuari entzutea emanda. Ekintza zibilak sustatuko dira, herrilurretako ondasunak berreskuratu eta defendatzeko.

9. art. Iturmendiko Udalak Nafarroako Gobernuari Jabetza Erregistroak igortzen dizkion ediktuen berri emanen dio, lursailen inmatrikulazioa edo herrilurrekin mugakide diren lursailen hedadura soberakina dela eta. Udaleko osoko bilkurak hartu beharko du jakinarazpen horien inguruko erabakia.

10. art. Iturmendiko Udalak Nafarroako Gobernuaren alde aurretiko onespen berariazkoa beharko du, ondasunak herri ondarerako berreskuratzearen eskualdakotarik egin nahi izanez gero.

11. art. Iturmendiko Udalak administrazio bidea erabiliko du betiere, baimen, kontzesio edo beste edozeren kariaz herrilurretako ondasunen gainean sortutako eskubideak eta haiek ekarritako okupazioak iraungitzeko, eta ahalmen hertsatzaileez baliatuz. Aldez aurretik kalteordaina eman ala ez, zuzenbidearen arabera izan da.

12. art. Iturmendiko Udalak, herrilurretako ondasunei buruzko kontratuetan partaide denean, interpretatu eginen ditu eta horiek betetzean sortzen diren zalantzak argituko.

Interpretatzeko erabaki horiek berehala hartuko dute indarra, eta ez dute galaraziko kontratugileek bide juridikzionalen behar den deklarazioa lortzeko duten eskubidea.

13. art. Iturmendiko Udalak herrilurretako ondasunak defendatzeko bidezko diren ekintzak sustatzen ez dituenean, herritarren ekimena posible izanen da zehaztuko den moduan. Ekintza horrek aurrera eginez gero, Udalak itzuli beharko dizkie herritarrei sortutako gastuak.

IV. TITULUA

Herrilurretako ondasunen aprobetxamendua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

14. art. Ordenantza honek arautzen dituen aprobetxamenduak honako hauek dira:

- a) Laborantzarako herrilurren aprobetxamendua.
- b) Herrilarreen aprobetxamendua.
- c) Etxerako egurren aprobetxamendua.

15. art. Iturmendiko Udala herrilurren ekoizpena abian jartzen, hobetzen eta egoki aprobetxatzen ahaleginduko da eta duen izaera sozialarekin bateragarri eginen du.

16. art. 1. Orokorrean, Iturmendiko herrilurretako aprobetxamenduen onuradun izateko, famili unitateen titularrek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Adinez nagusia izatea edo bere kontu bizi den nahiz judizialki gaitutako adin ttikiakoa izatea.
 - b) Biztanleen udal erroldan bizilagun gisa inskribatua egotea urtebeteko antzinatasunarekin eta urtean bederatzi hilabetez gutxienez egiazki eta jarraian bizitzea.
 - c) Udal honekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
2. Famili unitateko kideak etxe berean bizi diren guztiak izanen dira. Dena den, famili unitate independentetzat hartuko da guraso jubilatuek osatua, nahiz eta familikoekin bizi, betiere beraien dirusarrerak lanbidearteko gutxieneko soldata baino ttikiagoak baldin badira.

3. Artikulu hau interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak kasuan-kasuan argituko ditu Iturmendiko Udalak osoko bilkuran batzarturik, Herrilurren Batzordeak txostena egin ondoren.

II. KAPITULUA

Laborantzako herrilurren aprobetxamendua

17. art. Laborantzako herrilurren aprobetxamenduak hiru modu ezberdinetan eginen dira eta lehentasun ordena honi jarraituz:

- a) Lehentasuna duten herritarrendako aprobetxamenduak.
- b) Herritarrendako esleipen zuzeneko aprobetxamenduak.
- c) Enkante publikoaren bidezko esleipena edo Udalaren zuzeneko ustiapena.

Udalak modu horiek aipatu ordena berean aplikatuz eginen du laborantzako herrilurren aprobetxamendua esleitzeko prozesua. Basagale eremua izanen da aprobetxamendu mota honetarako herrilur bakarra.

LEHENENGO ATALA

Lehentasuna duten herritarrendako aprobetxamenduak

18. art. 1. Aprobetxamendu modu honen onuradun izateko, famili unitateen titular diren herritarrek 16. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta famili unitateko kide bakoitzarengatik, dirusarrerek lanbidearteko gutxieneko soldataren % 30 baino ttikiagoak izan beharko dute, edo famili unitatearen dirusarrera osoak soldata eta erdiaren azpitik egon.

2. Famili unitatean gorputzez edo adimenez ezinduak diren kideak baldin badaude, agiri bidez egiaztatuta, lanbidearteko gutxieneko soldataren % 60aren pareko dirusarrera kontatuko da kide bakoitzeko.

3. Errenta mailak zehazteko jarraitu behar diren irizpideak datu objektiboetan oinarrituz finkatuko dira. Hartuko dira kontuan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena, soldatak, laborantzako lurak errentamenduan nahiz beste edozein tituluren bidez edukitzea, landalurren eta industriaren gaineko kontribuzioen kapital zergagarria, hirilurren gaineko kontribuzioarena, norberaren etxebizitzari dagokiona kenduta, bai eta gisako izaera duen beste edozein datu ere.

19. art. Lehenetsuna duten herritarrendako aprobetxamendurako finkatutako baldintzak betetzen dituzten famili unitate asko badira, eta horrek arazo sozialik sortzen badu, Iturmendiko Udalak, aldez aurretik Nafarroako Gobernuaren baimena jasota, Ordenantza honetako 18. artikuluan adierazitako faktoreak jaitsi ahalko ditu proportzionalki eta arrazoituz, baina inoiz ez igo. Kasu honetan, Udalak bere herrilurren % 50 erabiliko du, gutxienez, banatzeko era honetarako.

20. art. Aprobetxamendu hau erabiltzeko epea gutxienez ere 8 urtekoa izanen da. Labore urteanitzak badira, eta Udalak baimendu ondoren, epe hori landare motaren bizitzaren arabera luzatuko da.

21. art. Aprobetxamendu honetan, herrilurren onuradunek hurrengo lur-saria ordainduko dute: 6.500 pezeta.

Zenbateko hori urtero eguneratu beharko da, gehienez ere nekazaritzako KPlaren arabera. Edonola ere, lur-sariak Udalak ordaindu beharreko kostuak estaliko ditu gutxienez ere.

22. art. Herrilurretako lurzatiak onuradunek zuzenean eta pertsonalki landu beharko dituzte, eta ezin izanen dituzte errentan eman edo ustiari lan pertsonala ez den beste moduren baten bidez.

Onuradunei esleitutako lurzatiaren laborantza hainbaten artean egitea ere zuzeneko laborantza pertsonaltzat hartuko da, haiek kooperatibetan edo legez erabakitako lan taldeetan elkartzen direnean eta kide guztiek 16. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

23. art. Ordenantza honi doakionean, zuzeneko laborantza pertsonala izateko, esleipen-hartzaileak edo haren famili unitateko kideek egin behar dituzte laborantza lanak, ordenantza honetako 16. artikuluan jasotzen diren ezaugarriak izanik, eta soldatapekorik ezin izanen dute hartu, non ez duten urtaroen edo nekazaritza ustiariaren gorabeherak horretara behartzen. Alabaina, zuzeneko laborantza pertsonala egiteko ahalmenik ez da galduko, Udal honen iritzian, laborantza pertsonala egitea eragozten dion eritasun edo aldi bateko beste arrazoiengatik soldatapekorik hartzen denean. Horrelakoetan, hamabost eguneko epean jakinaraziko zaio Iturmendiko Udalari, behar den baimena eman dezan.

Ezintasun fisikoa edo besteren bat, Udalaren iritzian, behin betikoa bada eta herrilurretako lurzatiaren zuzeneko laborantza pertsonalik egiten ahal ez bada, 24. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

24. art. Ezintasun fisikoa edo besteren bat izateagatik onuradunak ezin baditu lurzatiak zuzenean eta pertsonalki landatu, esleitzeko momentuan edo aprobetxamenduaren epean, Udalak esleitu egingen ditu hurrengo aprobetxamendu moduen bidez, hau da, herritarren arteko esleipen zuzeneko aprobetxamenduaren bidez. Udalak lurzatiaren titularrei esleipenetik ateratako dirusarrerak ordainduko dizkie, lur-saria kendu ondoren.

Udalak ezintasun fisikorik edo besteren bat noiz dagoen erabakitzeko eskumena du, eta egoki juzgatzen dituen agiriak eskatuko ditu.

Lur banaketa edo lagapena egiten dituzten onuradunei herrilurrak kenduko zaizkie esleipenaldia bukatu arte.

Lurzatiak galtzen dituzten onuradunek lur banaketa edo lagapena gertatu zenetik lortutako mozkinak sartu beharko dituzte udal gordailuzaintzan.

25. art. Iturmendiko Udalak egoki juzgatzen dituen egiaztaketak egin ahalko ditu edozein unetan, laborantza zuzenean eta pertsonalki egiten dela ziurtatzeko.

Lurak zuzenean eta pertsonalki lantzen ez direla kontsideratuko da:

a) Nekazaritzako makineria izanik, berari esleitu herrilurrak lantzeko erabiltzen ez duenean.

b) Herrilurren Batzordearen txostenaren arabera, esleitu herrilurretako lurzatiak, ordenantza honetako 22, 23 eta 24. artikuluetan xedatzen den bezala, zuzen eta pertsonalki lantzen ez dituzten.

c) Honako hauei dagozkien egiaztagirak eskatu ondoren, agindu epean aurkeztzen ez dituzten: lurra lantzea, lehengaiak erostea eta produktuak saltzea, beraiek edo Udalak baimendutako pertsonak eginak, frogatzeko agiriak.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenean nekazaritzako etekinik aitorzen ez duenean, horretara beharturik ez egonik ere.

e) Esleitutako lurzatiaren % 80, gutxienez, lantzen ez duenean.

f) Landalurren jabea izanik, hirugarrenei errentan emanak dituzten.

BIGARREN ATALA

Herritarrendako esleipen zuzeneko aprobetxamenduak

26. art. Lurzatiak 1. atalean ezarritakoaren arabera banatu ondoren, geratzen diren laborantzako herrilurrak, bai eta onuradunek zuzenean eta pertsonalki lantzen ez dituzten lurzatiak ere, zuzenean esleitu dira 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten famili unitateko titullarrak diren herritarren artean.

27. art. Herritarren artean zuzenean esleitu diren loteen azalera Udalak zehaztuko du, lehenetsuna duten herritarrendako esleipena egin ondoren. Esleipena gelditu diren lurren azalera eta sarturiko eskabideen arabera egingen da, famili unitate bakoitzaren dirusarrera garbien proportzio alderantzizkoan.

28. art. Esleipen epea 21. artikuluan adierazitako berbera da.

29. art. Herrilurretako lurzatiaren onuradunek aprobetxamendu modu honetan ordaindu beharreko lur-saria honako hau izanen da: 6.500 pezeta.

Zenbateko hau orain proposatutako lur-sariari dagokio, eta eguneratuko da urtero, nekazaritzako KPlaren muga gainditu gabe.

30. art. Laborantza zuzenean eta pertsonalki eginen du esleipen-hartzaileak. Horretarako, 22, 23, 24 eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

31. art. Udalak laborantzarako herrilurren azalera osoaren ehuneko 5 gainditzen ez duen eremu bat gordeko du, onuradun berriei esleitzeko.

32. art. Aurkeztutako eskaerak lurra baino gehiago badira, lehentasuna duten herritarrendako esleipena egin ondotik, dirusarrera handiagoak dituzten famili unitateetako titularren eskaerak kenduko dira.

Famili unitateen errenta mailak zehazteko, ordenantza honetako 18.3 artikuluan ezarritako irizpide berberei jarraituko zaie.

33. art. Udalak baratzak uzten ahal dizkie halaxe nahi duten famili unitateetako titularrei, baldintza hauekin:

a) Eskatzailea ez da laborantzarako lurren jabe ez bestelako herrilurren lotearen onuradun izan.

b) Laborantza zuzenean eta pertsonalki egin behar da 22, 23, 24 eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

c) Esleipena urtebeterako izanen da. Epe hori urtero luzatu ahalko da.

d) Lur-saria 6.500 pezetakoa izanen da. Proposatutako lur- saria hori urtero eguneratuko da, gehienez ere nekazaritzako K.P.I. aplikatuz.

Horretarako, Udalak eskaerei erantzuteko nahikoa den azalera erreserbatuko du, baina ez da izan laborantzarako herrilurren azalera osoaren ehuneko 10 baino handiagoa.

HIRUGARREN ATALA

Udalak egindako ustiapen zuzena edo enkante publikoa

34. art. Iturmendiko Udalak laborantzarako lurra sobran baldin badago, lehenengo eta bigarren ataletan ezarritako prozedurak aplikatu ondoren, enkante publikoan esleitu du zehaztuko den eperako, beti ere esleipena banaketa berria egitean bukatzen bada.

Erregu bakoitzeko hasierako prezioa Udalak finkatuko du eta eskualde horretan antzeko lurrentzat dauden errentamendu prezioen parekoa izanen da. Zenbateko hauek, nekazaritzako KPIa nola aldatzen den, halaxe eguneratuko dira urtero.

Enkantea egin ondoren laborantzarako lurra sobran geratzen bada, Udalak zuzenean ustiatu ahalko du.

LAUGARREN ATALA

Esleipenaren prozedura

35. art. Udalak osoko bilkuran erabakia hartu ondotik, epe bat irekiko da, eskubidea dutela uste dutenek herrilurretako lurzatiei esleipena eska dezaten, ediktua Udalaren iragarki oholean argitara eman ondoren.

36. art. Eskabideekin batera zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da, honako hauen gainean:

a) Herriko bizilaguna dela, gutxienez ere azkeneko urtean, eta urtero bederatzi hilabete ematen dituela, bederen, herrian.

b) Udal honekin zerga arloko eginbeharrak bete direla.

c) Famili unitatea zenbat kidek osatzen duten. Lehentasuna duten herritarrek haietarik inork ezintasun fisikorik edo psikikorik duen aipatuko dute.

d) Famili unitatea osatzen duten kideek Udal honetan bere jabetzakoak dituzten erreguak.

e) Famili unitatea osatzen duten kideetako bakoitzak errentan harturik edo jabetzatik aparteko bestelako moduren batean lantzen dituen lurrak, udalerririk honetan eta beste batzuetan, sekain-lurrak eta ureztalurrak bereizita.

f) Famili unitateko kide bakoitzak hirilur aberastasunaren zergapean duen kapitala, norberaren etxebizitzarena salbu, bai Udal honen mugapean bai beste batzuetan.

g) Nekazaritzatik, industrietatik edo zerbitzuetatik famili unitateko kide bakoitzak dituen dirusarrerak, baita Gizarte Segurantzako pentsiodunenak edo beste errentak ere.

Zinpeko aitortpena egiaztatzeko, Iturmendiko Udalak ahalmena izanen du errenta mailak egiaztatzearen beharrezkoak iruditzen zaizkion agiriak eskatzeko; haiek agiritan eta datu objektiboetan oinarrituko dira, 18.3) artikuluan zehazten den bezala.

37. art. Herrilurren Batzordeak proposaturik, Udalak, osoko bilkuran, onartuen zerrenda onetsiko du esleitzeko era bakoitzean, lehentasunekoan edo zuzenekoan. Zerrenda hori behin- behinekoa izanen da.

38. art. Aprobetxamendu mota bakoitzeko behin-behineko zerrenda Udalaren iragarki oholean egonen da 10 egun balioduneko epean, bidezko diren alegazioak egin ahal izateko. Alegaziorik aurkeztzen ez bada, behin-behineko zerrendak behin betikoak bihurtuko dira.

39. art. Alegazioak eta zuzendu beharreko akatsak izanez gero, horiei buruzko ebazpena ematen du eta mota bakoitzean herrilurretako lurzatiei onuradun izateko eskubidea dutenen behin betiko zerrenda onetsiko.

40. art. Lehentasuna duten herritarrendako aprobetxamenduan eskubidea duten famili unitatearen titularren behin betiko zerrenda ikusirik, loteak esleitu dira, eta horien ezaugarriak eta azalera ordenantza honetan ezarritakoaren arabera izanen dira.

Laborantzarako herrilurren gainontzeko azalerari dagokionez, Udalak laborantzarako loteak esleituko dizkie herritarrendako esleipen zuzeneko aprobetxamenduko behin betiko zerrendan dauden famili unitatearen titularrei, eta loteen ezaugarriak eta azalera ordenantza honetan ezarritakoaren arabera izanen dira.

Lurzatiak esleituta, onuradunen eta horiei dagozkien herrilurretako lurzati zerrenda jendaurrean egonen da, 15 egunetan, iragarki ohelean. Zerrendak Udalak onetsiko ditu, osoko bilkuran.

41. art. Argitaratutako zerrenden aurkako alegazioak, halakorik bada, behin ebatzita eta akatsak zuzenduta, behin betikotzat joko da laborantzarako herrilurren aprobetxamenduen esleipena.

III. KAPITULUA

Herrilurretako larreen aprobetxamendua

42. art. Iturmendiko Udaleko herrilarreek ustiapen unitatea osatzen dute beste finka partikularrekin batera, antzinako ohitura, edo lege nahiz hitzarmenari jarraikiz, eta bazkatoki hauetan banatzen da:

Hegoaldeko eremua (N-240 errepidearen eta Andimendiren mugen artean). Honako dermioetan banatua:

- Barga.
- Ereitz.
- Itsasondo.
- Iparberoki.
- Elordi-Gaztainatxikieta.
- Elordi-Karape.
- Sanpedroalde.
- Sarateburu.
- Ilarraldi.
- Txoritegi.

Iparraldeko eremua (N-240 errepidearen eta Ataungo mendiaren mugen artean). Honako dermioetan banatua:

- Aitzagalde.
- Axeizuloeta.
- Otadi 1.
- Otadi 2.
- Teilalde-Dendarisoro-Bordalde.
- Madura.
- Beheko basoa.

Azalerari dagokionez, herrilurretako eremuek tradizionalki izan dutena hartuko da kontuan; izan ere, alde handia dago tradizionalki eremu bakoitzarekin ulertzen denaren eta eremu horrek Landalurren Aberastasunaren Katastroan duen izendapenaren eta azaleraren artean.

43. art. Iturmendiko Udalaren herrilurretako larreen aprobetxamendua modu hauetan eginen da eta lehentasun ordena honi jarraituz:

- a) Herritarrendako esleipen zuzena eginez.
- b) Usadioaren ariora (zozketa).
- c) Enkante publikoaren bidez esleitzuz.

44. art. Ordenantza honen 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten famili unitateetako titularrak izanen dira herrilurretako larreen aprobetxamenduaren herritarrendako zuzeneko esleipenaren onuradunak. Horretarako, azizendak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Azienden Erroldaren Erregistroan alta emanda eduki beharko dituzte, eta ustiapenaren liburuan agertarazi. Titularrak, gainera, toki entitatearen baimena beharko du, bere azizendari dagokion jardueran aritzeko.

45. art. Herriko abeltzainek zuzenean aprobetxatuko dituzte larreak, eta ez da zilegi izan haien azpierrementamendua edo lagapena.

46. art. Esleipen epea zortzi urtekoa izanen da eta besterik gabe luzatuko da, gehienez ere 15 urteko eperako.

47. art. Kontuan hartuz bazkatzen ahal diren abelburuak, larreen kalitatea eta abeltegiak dituzten ala ez, Iturmendiko Udalak lur-sari hauek finkatu ditu bazkalekuetarako:

-Iparberoki: 1.000 pezeta.

-Elordi-Gaztainatxikieta: 32.000 pezeta.

-Elordi-Karape: 20.000 pezeta.

-Sanpedroalde: 7.500 pezeta.

-Sarateburu: 50.000 pezeta.

-Ilarraldi: 30.000 pezeta.

-Aitzagalde.

-Azerizuloeta: 98.000 pezeta.

-Otadi 1.

-Otadi 2: 105.000 pezeta.

-Teilalde-Dendarisoro-Bordalde: 5.000 pezeta.

48. art. Esleipen prezioa urtero berrikusiko da, bizitzaren kostuak dituen gora-beheren arabera egokitzeko, Nafarroako erakunde ofizial eskudunak (nekazaritzako KPI) onartzen dituen indizeak kontuan hartuz.

49. art. Urte bakoitzari dagokion lur-saria bi epetan ordainduko da:

-Lehenengo epea: urteko zenbatekoaren ehuneko 50ari dagokiona, esleipena egin eta sei hilabeteren buruan.

-Bigarren epea: urteko zenbatekoaren gainerako ehuneko 50ari dagokiona, esleipena egin eta hamabi hilabeteren buruan.

50. art. Onuradunak, esleipena egiten den egunetik hasita 10 eguneko epean, esleipeneko 8 urteengatiko kopuru osoaren ehuneko 10 ordaindu beharko du fidantza gisa. Fidantza hori esleipena bukatu arte gordeko da, osorik, ondasunetan gerta daitezkeen kalte eta narriaduren berme gisa.

51. art. Iturmendiko Udalak larre guztien bostena gordeko du urtero esleitu ahal izateko, onuradun berriak agertzen badira ere.

Gordeko den eremu horrek muga hauek ditu:

Iparaldeko eremua: Madura.

Hegoaldeko eremua: Ereitz, Itsasondo, Txoritegi.

Barga eta Beheko basoa izenekin ezagutzen diren eremuak, Iturmendiko hermendia, itxita egonen dira eta ez dira esleitu eta erabiliko. Birsorkuntza naturalerako utziko dira.

52. art. Herrilarreak aprobetxatzen dituzten abereek beharko dute izan osasun ziurtagiri bat egiaztatzen duena herrilarreak aprobetxatzen dituzten abereen Osasun Babesari buruzko maiatzaren 4ko 5/1984 Foru Legearen 1. artikulua eskatutako baldintzak betetzen direla, eta horregatik bete behar dira aipatu Foru Legean eta haren erregelamenduetan zehaztutako baldintza guztiak.

53. art. Herriko ohituren arabera eta nekazariei nahiz abeltzainei kalterik ez eragiteko, Iturmendiko Udalak ondoko baldintzak ezarri ditu:

Epeak, baldintzak, sasoiak eta abar ezarriko dira.

54. art. Prozedura. Udalak erabakia hartu ondotik, hamar eguneko epea emanen da eskubidea dutela uste dutenek larreen esleipena eska dezaten, betiere Udalaren iragarki ohelean ediktua atera ondoren. Eskabidean honako datuak adieraziko dira:

-Izen-abizenak.

-NAN zenbakia.

-Eskuratu nahi den aprobetxamendu mota.

-Bere izenean katastroan sarturik duen azienda kopurua eta mota.

-Osasun zainketaren ziurtagiria.

-Erabili nahi duen lurzatia.

55. art. Udalak behin-behinekoz egiten du esleipena, baldintza hauek kontuan harturik:

a) Lehentasuna emanen zaio egoera ekonomikorik urriena duen famili unitateari.

- b) Bazkalekuek hartzen ahal duten abelburu kargaren arabera esleituko dira, abelburu kopurua antzekoa duten eskatzaileen artean.
- c) Bazkaleku bat bera abeltzain bat baino gehiagori esleitzen ahal zaie, guztiek dituzten abelburuen kopurua, bazkalekuak hartzen ahal duen kopurua baino handiagoa ez bada. Kasu honetan, lur-saria abelburu bakoitzeko kalkulatu da.
- d) Abeltzain bati bi bazkaleku edo gehiago esleitzen ahal zaizkio, baldin eta abererik aski badu eta herriko gainerako abeltzainen eskaerak asetzen badira.

56. art. Behin-behineko esleipen horien ondotik 10 eguneko epea irekiko da erreklamazioetarako, eta epe horretan ez bada halakorik aurkezten, esleipenak behin betikoak bilakatuko dira.

57. art. Herritarren artean banatu ondotik sobran diren larreak enkante publiko bidez esleituko dira, urtebeterako eta indarra duen araudiari eta ordenantza honetan aplikatzeko denari jarraituz.

IV. KAPITULUA

Etixerako egurraren aprobetxamendua

58. art. Mendian nahikoa izan eta, Nafarroako Gobernuak baimendu eta Mendi Zerbitzuak markatu ondoren, Iturmendiko Udalak epaitzak banatuko ditu ordenantza honen 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten famili unitateei.

59. art. Iturmendiko Udalak urtero finkatuko du famili unitateei esleitzeko epaitzen bolumena, mendian dagoen egurraren arabera. Noizbait beharrezkoa baldin bada eten egingen da aprobetxamendu hori, Udalari egoki iruditzen zaion denborarako.

60. art. Epaitzak zuzenean erabili beharko dira eta onuradunak ezin izanen ditu saldu.

61. art. Egurra banatzerakoan Iturmendiko Udala irizpide sozialetan oinarrituko da eta diru aldetik apalenak diren famili unitateei lehentasuna emanen die.

62. art. Aurreko artikulua famili unitateei buruz aipatzen dituen maila ekonomikoak zehazteko, Iturmendiko Udala irizpide objetiboetan oinarrituko da, ordenantza honen 18. artikuluan islatzen den bezala.

63. art. Epaitzen aprobetxamenduarengatik ordaindu beharreko saria urtero finkatuko du Udalak aurrekontu arruntan.

64. art. Onuradunak behartuta daude egurra jaso ondoren hondarrak bildu eta pilatzera. Hondar horiek ezin izanen dira pilatu ez bideetan, ez mendi-pistetan, ez eta oztopo izan daitezkeen lekuetan ere. Betiere Herrilurren Batzordeak ematen dituen jarraibideei kasu egingen zaie. Artikulu honetan ezarritakoa betetzen ez dutenei, etxerako egur aprobetxamenduaren esleipena ukatuko zaie.

65. art. Esleipen prozedurarako, ordenantza honetan esleipen mota bakoitzari buruz xedatutakoari segituko zaio.

V. KAPITULUA

Herri ondasunen hobekuntzak

66. art. 1. Iturmendiko Udalak indarrrik gabe uzten ahal ditu aprobetxamenduen esleipenak, lur horiek honako xedea baldin badute:

- a) Herrilurren gaineko kargak kentzea.
- b) Herrilurra hobetzea.
- c) Gizarterako proiektuak egitea, inguruabar pertsonalak, familiarrak edo sozialak direla medio beharrean daudela justifikatzen duten herritarrei laguntzeko.

66. 2. Proiektu hauek Udalak nahiz interesaturik dauden herritarrek sustatzen ahal dituzte eta lehentasuna izanen dute.

67. art. Hauxe da kasu horietan jarraitu beharreko prozedura:

- a) Udalaren erabakia, proiektua eta ukitutako herrilurren aprobetxamendua arautuko duen erregelamendua onesten dituen.
- b) Hilabeteko epean jendaurrean edukitzea eta Udalaren erabakia aurkezten diren alegazioei buruz.
- c) Nafarroako Gobernuaren onespena.

68. art. Nafarroako Gobernuaren onespentak indarrrik gabe utziko ditu ukitutako herrilurretan diren esleipenak, eta titularrei sorrarazten zaizkien kalte eta galerak, bai eta lurretan eginak dituzten hobekuntzak ere, ordainduko zaizkie, zuzenbidez hala egokitzen bazaie.

69. art. Aprobetxamenduaren onuradunak herrilurra hobetzeko egiten dituen proiektuak toki entitateak berak onetsi beharko ditu, aldez aurretik 15 egunetan jendaurrean eduki eta gero aurkezten diren alegazioak ebatzi ondoren.

V. TITULUA

Arau-hausteak eta zehapenak

70. art. Honako hauek dira arau-hauste administratiboak:

- a) Erabilpena zuzenean eta pertsonalki ez egitea.

- b) Aprobetxamenduen sariak Udalak finkatuko dituen epeetan ez ordaintzea.
- c) Herritarrendako aprobetxamendua nabarmen gaizki edo osorik ez egitea.
- d) Herrilurrari esleipeneko erabilera ez dena ematea.
- e) Lurrak lantzea udal esleipenik gabe, nahiz eta landu gabeko lurrak, hots, larre utziak, izan.
- f) Laborantza iraunkorrak (frutarbolak, zainzuri-landareak, etab.) udal baimenik gabe landatzea.
- g) Esleipenetan aipatutako epeak ez errespetatzea.
- h) Herrilurretan bazkatzen den aziendaren osasuna zaintzeari buruzko Foru Legean eta hori garatzen duen Erregelamenduan xedatutakoa ez betetzea.
- i) Hildako animaliak lurperatu gabe abandonatzea.
- j) Artzaintzarako aldeak ez errespetatzea.
- k) Ordenantza honetan xedatutakoari kontra egiten dion edozein egintza edo ekintza.

71. art. Arau-hauste horiek ondoko zehapenak izanen dituzte:

-a), b), c), d), f) eta h) arau-hausteengatik kontzesioa kenduko da, nahiz eta horrek ez duen galarazten Nafarroako Gobernuaren organo eskudunek zehapenak ezartzea.

-g) arau-haustearengatik lurren edo herrilarreen esleipen-hartzailea izateko eskubidea galduko da.

-Gainontzeko arau-hausteengatik, eragindako kaltearen balioaren halako bost eta hamar bitartean ordainaraztea. Balioa zehazterik ez badago, 10.000tik 200.000 pezetara bitarteko zehapena ezarriko da.

72. art. Ordenantza honek indarra hartuko du Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean osorik argitaratzen denean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Iturmendiko herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza honek indarrrik gabe uzten du Iturmendiko Udalak 1988. urtean onetsitako Herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza.

Iturmendin, bi mila eta bateko urriaren hogeita hamaikan. Alkatea, Julen Galarza Otxoa.

Iragarkiaren kodea: A0113042